



hamaikabat

GIZARTE ETA

EKONOMIA arloko

Txostena

1. Eremu soziala

1. Alderdiaren nortasuna. Sozialdemokrazia modernoa.

1.1. Ongizate Estatuaren zilegitasuna

1. Ongizate estatuaren azken hamarkadetako murrizketa jarriak elkartasun baliabideak eta hauen balioa sistemaren tresna zilegitzailerik gisa gutxitu ditu. Interesak zatitu egin dira, arriskuak biderkatu eta gaur egun ongizatearen ideien inguruko adostasuna lortzea geroz eta zailagoa da bizi dugun indibidualizazio aroa kontuan hartuz.

2. Sozialdemokrazia berriak desberdintasun errealak azaleratu eta konponbidea emango dien ongizate estatua zilegitu behar du.

3. Helburu sozialdemokratak testuinguru modernoan ezarri behar dira, zeinetan aldaketa sozial azkarrak eta integrazio ekonomiko globalak gure erreferentzia markoak eraldatzen dituzten. Baina garrantzitsua da arriskua es importante dejar constancia de que los riesgos no son individuales, son compartidos por los ciudadanos.

4. Justizia sozialaren helburua ezin da gauzatu elkartasun kontzeptu berri bat gabe, hau da, **kontratu sozial berri bat**, hiritartasun lotura berfinkatuko duen harreman berria, pertsonen arteko elkartasuna sendotuko duena. Ongizate estatuaren oinarrian egon behar da, elkartasunaren definizio klasikoarekin batera, hots, gizarteko txiroenen aldeko diru-sarreraren eskualdaketa gehien daukatenen eskutik.

5. Hiritarren bakarkako erantzukizuna beharrezkoa da, guztien ongizatea helburu duen hiritarren obligazio morala hiritarkideekiko alegia.

6. Hortaz, gure **helburua** erronka berriak kontuan hartzen dituen ongizate estatua izan behar da: hiritarren benetako partaidetza zabala ahalbidetzen duten botere egiturak garatzea eta aldaketen aro honetan justizia sozialaren bila jarraitzeko espazio berriak irekitzen dituen politika markoak.

1.2. Ongizatea hiritar guztientzat.

7. Hiritargo oso baten garapena gizarte bateko parekidetasunaren ibilgailu nagusia da, berdintasunerako ibilbide jarraia. Gizarteko kide gisa osatzen dugun antolamendu politikoarekiko atxikipen eta partaidetza suposatzen du, honen osagai aktibo bihurtzen gaituen praktika multzoari so eginda.

8. Sozialdemokrata gisa, erakundeen zilegitasuna hiritargoaren eskubideen betetzean datza.

9. Hiritargoak zilegitutako bizitza maila minimoa eta eskubideen titularrei baliabideen sarbidean bazterketarik eza bezalako helburuetan sakondu eta sustatu behar ditugu.

10. Sozialdemokrazia berriak justizia soziala, elkartasuna eta berdintasuna bezalako helburuak berpentsatu behar ditu ezaugarri berrietara egokitzeko, hauek lortzeko baliabideak berrikusiz honetarako. Pertsonak ardatz dituen kudeaketa politikoa.

Printzipioak:

- ekitatea
- justizia soziala
- elkartasuna
- proiektu banatuen bilatzea
- partaidetza aktiboa

1.3. Aukera berdintasuna

11. Guztiaren gainera, gizarte politiken aurreko jarrera gogoetatsu bat izan behar du, horrela osasuna, hezkuntza, edo bizimodu duin bat izateko ongizatearen inguruko eszenatoki propio bat izatera eramango gaituen norabidea mantendu ahal izateko, pertsonen berdintasuna oinarri gisa izango duena.

12. Politika publiko sozialak hiritarren bizi aukeratan eragiten duten eskuhartzeak dira. "Aukera berdintasun" irizpidearen bitartez, hiritarrek eskubide eta aukera berberak izango dituzte euren etorkizuneko bizitza aukerak garatzeko.

13. Ezin ahaztu dezakegu, bizi garen munduak, lan merkatuaz gain, eremu guztietan lehiakor eta kolaboratzaile izatera bultzatzen gaituela. Erakundeek hiritarrak euren bizitzako erronkatan lehiatu eta aritzeko prestatu behar dituzte eta hiritargo guztia erronka horietan inplikatu behar da, adibidez, hezkuntza eta ikasketa sistemaren bidez (ALTV). Sistematik baztertuta geratu daitezkenenganako gizarteratze neurriak ahaztu gabe.

14. Gure **helburuak**, beraz, merkatu arriskuen aurrean babesa eta hezkuntza eta giza kapitalean inbertsioa izan behar dira.

2. Etorkizuneko modelu sozial berria

2.1. Sistema sozial eta ekonomikoaren aldaketa progresiboa

15. Ezaugarri ezberdinek norabide batean edo bestean garamate historian zehar. Lehiakortasunaren aldeko joera hartu duten estatuen ondorioak pairatzen ditugu, merkatu estatuen ezaugarriak hartzen joan direnak, ahalik eta eremu gehien merkatu irizpideen menpe jartzen saiatuz. Honek bizitzako eremu askotan eragina izan du, eskubide sozialen murrizketa sustatuz, malgutasun eta prekarietatean barneratutako langileak agertuz. Interesen izugarritzko banaketa ere ekarri du.

16. Irizpide neoliberalak arriskuak indibidualizatzen saiatu dira, horregatik, a priori babesgabe egoeran dauden pertsonen euren arriskuak larriagotuak ikusten dituzte, merkatuek berrikuntza eta ikasketa jarraia galdatzen baitituzte. Joera eskubide sozialak norberak bere burua zaintzeko betebeharragatik ordezkatzeari da. Baina arriskuak kolektiboak dira, honetan guztiak elkarrekin gaude.

17. Egoera honetara eraman gaituzten egiturak barneratu behar ditugu norabidea zuzenduz oreka berri batean erakundeen garrantzia azpimarratuz.

18. Ezin ditugu nazioarteko erronkak, ekonomiaren interkonesioa eta gizarte industria ondorengoaren ezaugarriak ahaztu, baina momentu oro euren arrisku eta abantailak zeintzuk diren kontuan izan behar dugu, mugak jartzen saiatuz eta lehentasunak finkatuz.

19. Sozialdemokrazia modernoak euren botere ekonomikoa ahultzen ari den pertsonen ondoan egon behar du, gizarte baloreekin harremanetan bizitza maila minimo bat bilatuz.

20. Aurrerakuntza jarraitu behar da, baina inor atzean utzi gabe, egonkortasuna aldarrikatuz guztientzat. Gizarte kohesionatua ekonomia sendo baterako funtsezko baldintza da.

21. Lehiakortasunak segurtasun gabezia maila handiagoa, lan prekarioa edo/eta gaizki ordaindua sortu dezakena kontziente izan behar dugu. Behar eta aukera berriak sortuko ditu, eta honetarako ezinbestekoa izango da gaitasun jarraia, bizitza guztian zehar ikasketa prozesu batean inplikatzeara. Era berean gizarte zahartua, imigrazioa, egiturazko pobrezia, familia era anitzak... bezalako erronka berriak eragingo ditu. Eskubide sozialak laguntza erakundeen bidez sustengatzen dira bizi arriskuei aurre egiteko (langabezia, gaixotasuna, zahartzaroa, pobrezia egoera).

2.2. Giza garapenaren marko autentikoagoa

22. Pertsonetan oinarritutako kudeaketa politikoa sustatu behar du, gainera, jasangarria, partehartzailea eta elkartasunezkoa.

23. Estatuak, gizarteak eta merkatuak ongizaterako baliabideak ditu. Hiru elementu hauek pertsona guztien beharrak asetzeari bileratu nahi da, pertsonen arteko konfidantza, elkartetasun eta kontzientzia hiritar eta etikoaren bidez.

a. elkartasunezko askatasunean oinarritutako sistema batean –hau da, norberaren eta gizartearen garapenean oinarritutako konpromezu askea, gizartearen norberaren ingurua eta gizadi osoa bezala ulertuta.- eta

b. ekitate soziala justizia banatzailearen testuinguruan bilatzen duena.

24. **Kontrato sozial berri batek** guztien onurari buruzko funtsezko adostasuna galdatzen du, interes kontrajarrien arteko konpromiso hutsala baino haratago doana.

25. Gizarte bateko onura komuna ez da aldagai ezberdin gisa berau osatzen duten norbanakoen interesak dituen ekuazioaren ebazpen hutsa. Zein balio izango lukete ekuazio horretan gizarte horrek etorkizuneko kideekiko eta utzi behar dien inguruarekiko dituen obligazioek?

26. Konpobidea, hortaz, kulturala da, baloreei dagokiena.

27. Konpromezu sozialaren egoera hau jokabide politiko batekin identifikatzen da: giza garapen jasangarriaren ideia

Giza garapena:

- i. Ardatza: pertsonak;
- ii. Aukera hobeak sortzea eurentzat eremu ekonomikoan (enpleguan eta partaidetzan), eremu kulturean (identifikatzen den kultura eta hizkuntzan bizi izatea), eremu sozialean (ekitate) eta politikoan (partaidetza).

Jasangarritasuna;

- iii. Gure gaurko egoeraren aldaketa barneratu etorkizuneko belaunaldiekiko obligazio gisa;
- iv. Giza garapenaren eta bere jasangarritasunaren ezaugarri garrantzitsu pertsonen izaera soziala, kooperatiboa, da. Egoki da aitortzea giza kapitalaren berraktibazioa lortzeko dugun erronka, bereziki gertutasunezko sare sozial eta komunitarioei dagokienez, gizakien lehen aterpe. Behar sozialei erantzuteko orduan partaidetza erraztu eta jarduera mutualista eta kooperatibo izugarria gauzatzen duten sareak

3. Krisi kulturala gainditu. Baloreen berreskuratzea.

28. Aldaketa kultural baterako balore berriak eta berrituak, **kontratu sozial berri** baterako abiapuntua.

29. Adibidez, pertsonen lotura sozialak sustatu, elkartetasun gaitasuna sendotu-ikuspuntua soziala-, pertsonen zoriontasun handiagora sarbidea ahalbidetuko dien gizarte egituratu...eta askatasun esparru batean pertsonen giza garapena onuratsuen duen botere publiko eta gizartearen arteko harreman esparrua ezarri, autogobernua,

aniztasuna eta elkartasuna barnebiltzen dituen. Erantzukizun soziala ere suposatzen du.

30. Lehenik, gure inguruarekin, komunitatearekin, askeki hartzen ditugun konpromezu eta betebeharren ideia baloratu, erantzun berbera jasoko duguna itxaroaz.

31. Bigarrenik, lana eta ekintzailetasuna oinarritzko giza balore bezala aldarrikatu, zokoratuak izan diren tokitik berreskuratuz. Honekin batera, balore filosofiko kooperatiboa euskal gizartearen garapenaren adibide bat gehiago bezala aldarrikatu.

32. Hirugarrenik, partaidetza politikoa eta Administrazio bizkorra sustatu, kapital sozial eta berrikuntzazkoaren dinamizatzailerik gisa, arazoaren aurreko ekimen gaitasunarekin.

33. Proposatzen dugun “**Kontratu sozial berri**” horren oinarri izan behar diren elkartasuna, berdintasuna, ahalegina eta erantzukizuna bezalako baloreen berreskuratzeaz ari gara, beraz.

34. Eta “kontratu sozial” berriaren oinarriak garatzeko, babes eta banaketa baliabideak bideratu eta zabaldu behar dira, helburu honetara xedatutako politikak zilegituz eta desberdintasuna salatuz eta zuzenduz.

35. Gizarte kohesionatu baten erronkak, ezinbesteko egiten du kontratu sozial berriak gizarte ezberdintasunak, migrazio fenomenoak, gizartearen zahartzea, gizarte bazterketa, lan harremanak, finantziario publikoa, presio fiskala eta autogobernurako tresnen garapena bezalako gaiak aboratzeko konpromisoa hartu dezala.

36. Horregatik proposatzen dugu honako printzipioetan sustengatzen den politika sozial mota:

- **Duintasuna:** Politika sozialen garapen mailak gizarte bateko “duintasun lerroa” finkatzen du. Pertsona orori bermatu behar zaizkion eskubideen aitortzea da.
- **Unibertsaltasuna:** Politika sozialak, pertsona guztientzako eskubideak dira, pertsona guztiek bizitzeko egoera eta momentu ezberdinetan erabiliko dituzten zerbitzuak.

- **Banaketa:** Gizarteko pertsona bakoitzari bere beharren arabera baliabideetarako sarbidea bermatuko duen egoerara iristeko.
- **Elkartasuna:** Elkartasunaren dinamika politika sozialek erantzuten dituzten interes komuneko gaiei aurre egiteko hiritar eta erakunde gisa ditugun erantzukizunen aitopenearekin parekatu behar da. Erantzukizun hori ez da garatzen soilik betebeharren aitopene indibidularekin, baizik hiritargoaren lankidetzaren bidez era anitzean antolatu eta definitutakotik.

37. Eta guzti hori, politika sozialek pertsona guztientzat **justizia sozial banatzailea** lortuko duten helburuarekin.

2. Eremu ekonomikoa

38. Egungo ekonomiak eboluzionatu eta arauak aldatu beharra du jarduera ekonomikoa giza beharren asetzera bideratuz.

39. Krisi ekonomiko globalaren testuinguruan, gure gizartea berreraikitzeko aukera historikoaz arduratu behar gara, eta imaginazioz eta jokabide aktibo eta positiboz hobetu beharra dugu, beharrezko aldaketa kulturalak aktiboki sustatuz, “krisiaren irteera kulturala baita edota ez da irteerarik”.

40. Sistemaren limitazioak agerian jarri dituen ekonomia eta balore krisi baten aurrean aurkitzen gara. Egoera honen aurrean, ezinbestekoa dugu, interbentzio txikiago bat aldarrikatu dutenen aurrean, lidergo publiko bat aldarrikatzea, bere baitan Moneta Sistema, Europear Banku Zentrala eta Batasun Ekonomiko eta Monetarioa bere baitan hartuko dituen Europar Gobernu Ekonomikoaren sorrera aldarrikatuz. Erakunde honek kontrol gehiago ezarri beharko luke fiskalitate, kontrol eta mugimenduen alorrean.

41. Ekonomiak ez baitu lehiakorra bakarrik izan behar, solidarioa eta sostengarria ere izan behar du.

42. Oinarrizko lehengaien eta energiaren dependentziazko egoera baten aurrean, balio gehigarria eman dezaketen prozesuen alde egin behar dugu eta horretarako ezinbestekoa da pertsonengan inbertitzea (hezkuntza, formazioa, ikerketa) bai sektore publikotik eta baita pribatutik ere.

43. Ekonomia dagoen lekuan behar artifizialak sortzen dituen modelutik benetako behar sozialak dauden lekuan ekonomia sortuko duen modelura jauzi egitea ezinbesteko da. Ekonomikoki, sozialki eta ingurugiro aldetik iraunkorra izango den eredua, datorren belaunaldiakin solidarioa izango dena.

44. Ekonomia gizartearen zerbitzura jartzean eta jarduera arazo sozial eta desoreka larrien gainditzera bideratzean datza. Egungo gizartearen defizita pairatuko duten

eremuetan jarduera ekonomikoa eta enplegua sortzea da arazo nagusia: hauxe da azkartasunez gainditu behar dugun erronka handia.

1. Garapenaren oreka ekipotenziala Equilibrio equipotencial de desarrollo

45. Globalizazioaren fenomenoak mundu garatuak hedapen eratorriak eskaintako abantailak aprobetxatzea ahalbidetu du. “Lehen munduaren” eta “hirugarren munduaren” arteko ezberdintasunak areagotu dira. Hain mundu desorekatua ezin da denboran zehar mantendu, bereziki informazioaren joan-etorriak injustizien kontzientzia orokortua sortzen duenean. Sistemaren koherentziak garapen ekipotenziala batera iristea galdatzen du.

46. Ezinbestekoa da arazoari urgentziaz ekitea, horrela, ezberdintasunak gutxituz sistema orekatu ahal izateko. Mundua murgilduta dagoen globalizazio prozesuak, ezberdintasun hauek areagotu besterik ez du egiten, prozesu hau Iparraldeko herrien agente ekonomikoek diseinatutakoa baita, beraien interes ekonomiko, politiko eta estrategikoei so eginez. Multinazionalak beraien kapitalaren hedadura globalizatu eta unibertsaltzen dute, baina ez da berdina gertatzen Eskubideez hitz egiten dugunean, hauek ere globalak izan behar bailukete. Osasunerako, oinarritzko elikadurarako, bizitza duinerako edo hezkuntzarako eskubideak, esate baterako, gizakiaren berezko ezaugarriak izan beharko lukete. Beraz, gure gaitasunen arabera, pobreziaren arazo estrukturalak konpontzera arduraz ekin beharko dugu. Hegoaldeko herriek nazioarteko solidaritate arduratsua behar dute, herrialde horien garapena Giza Eskubidea dela oinarri hartuta politika koerenteak garatuko dituen.

47. Horretarako Hego eta Iparraldeko herrien arteko esfortzu komun bat beharrezkoa izango da, pobrezia eta ezberdintasunak besterik sortu ez dituzten zaharkitutako harreman ereduak aldatzeko. Helburua, herrialde hauekiko harremanetan, bertan egiten diren inbertsioetan,... aldaketa estrukturalak egitea izango da, maila berdineko agente bezala kontsideratuz, eta horrela, elkarlanean, beraien garapena bultzatuz.

48. Egungo egoera ekonomikoa gutxiago garatutako herrialdeak errekuiperatzeko esfortzuari zuzentzea ezinbesteko neurria da pertsona guztientzako justizia sozial bat lortzeko bidean, beraien jatorri edo egoeratik at. Ezin dugu ahaztu gainera, pobreziak

emakume aurpegia duela eta munduko pertsona pobreenen portzentaiei so eginez, %70a emakumezkoak direla. Errealitate hauen aurrean gure kontsumo ohiturak aldatu eta gure politikak modu estrukturalean birplanteatu behar ditugu, horrela, akats zaharrak errepikatu gabe, guztion artean krisi egoera honetatik ateratzeko klabeak topatu eta aldaketa prozesuei bidea irekiz.

2. Gizarte berri baterako “ziberekonomiaren” aukera berriak.

49. Informazio eta komunikazio teknologia berriek (IKT) orain urte batzuk pentsatu ere ezin ziren iguripen berriak ireki dizkigute. Sektore ekonomiko berri bat sortzen ari da, KITBena, espazio ekonomiko berri bilakatzeko dimentsio nahikoa duena. Osaketa heterogeneoa eratzen duten produktu eta zerbitzuak dira, gaurdaino ez zeudenak, non negozio hutsa dibertimenduekin nahasten den eta doako zerbitzu eta ordaindunen artean bereiztea zaila den.

50. Espazio berri honen garrantzia, eremu ekonomiko izateaz gain, kontsumo, harreman, kultura, heziketa eta aisia era berriak sortzean datza. Teknologia hauen bidez gizarte era berri bat eratzen ari da eta hauenganako apustu argia egin beharra dugu.

3. Partaidetza, ikuspuntu ezberdinetan: mota guztietako proiektuen sorreran, hauen kudeaketan, enpresen irabazietan, enpresen jabetzan.

51. Partaidetzaz ari garenean, lau eremu kontsideratu behar ditugu:

- Partaidetza JATORRIAN → enpresa proiektuaren sorreran, helburu estrategikoen ezarpenean plan operatiboenean, erabakien onarpenean.
- Partaidetza EXEKUZIOAN → kudeaketan, egitasmoen garapenean eta bere lorpenerako ezarritako ekintzak martxan jartzean.
- Partaidetza IRABAZIETAN → exekuzioan lortutakoaren fruitua. Negatiboa (galerak) nahiz positiboa denean gertatuko dela ulertuko dugu.
- PARTAIDETZA enpresa proiektuaren JABETZAN (Aktiboen jabetza nork duenarekiko independentea). Gure herrian, kooperatiben errealitatea existitzen da, MBOen exekuzioan aurrerakuntza xumeak izan dira baina europear estatuen eta EEBBen nibeletik urruti gaude.

52. Guzti horregatik, kooperatibismoaren garapena etab. Euskadiko garapen ekonomikoaren osagarri tradizional eta filosofia ezberdin bezala, aurrera eraman beharreko helburu bat gehiago izan behar da.

53. Hamaikabatek, mugimendu honen balore tradizionala aintzat hartuz, gizartean eztabaida bat sortu beharko litzatekeela uste du, bere hedapen eta integrazioarako, horrela horrenbeste behar dugun industria eredurako ideiak eman eta jasoaz.

4. Pertsona jarduera enpresarial eta sozialen BENETAZKO PROTAGONISTA eta ARDATZA kontsideratu.

54. Pertsonak erakundeen ardatzean finkatu eta hauen garapenaren protagonista izan daitezen lan egin behar dugu. Solo desde esta visión de la persona como ser integral, esa persona percibe que puede desarrollarse plenamente a través de esa organización y es más creativa e innovadora.

55. Beharrezko zaigu hau ahalbidetzea, modu honetan soilik lor baidaitezke gizartearentzat erakunde berritzaile, lehiakor eta erakargarriak.

5. Enplegu eta enplegarritasunarekin konpromezua.

56. Gure helburua Euskal Herriko hiritarren ongizate eta aberastasun maila handitzea izan behar da. Aberastasuna sortzeko funtsezko garrantzia dute jarduera tasak eta balorearen sortze mailak.

57. 2008 urtean zehar erakunde eta kolektibo ezberdinen mezu anitz ditugu adin piramidearen arazoari dagokionez, lanpostu askoren ordezkapen falta plazaratuz (90.000 lanpostu 2015erako eta 200000 2022rako). Baina piramide demografikoaren arazoa ez dagokio soilik Euskadiri: Eurostat erakundearen arabera, 27EBn, 4milioi lanpostu zeuden ordezkapen beharrean 2008 urte bukaeran, 18 milioi langabetu zeuden bitartean hauek bete ezinik kualifikazio faltagatik.

58. Ordezkapen generazionalaren benetako arrazoi sakonak ezagutzea ezinbestekoa da. Gaur egun, gure kontestuan, emakumeek, beraien amatasuna planifikatzeaz gain,

batzutan honi uko ere egiten diote, nahiko luketen baldintzetan egin ahal ez izateagatik.

59. Kualifikazio altuko emakume askok lan merkatua utzi edo bere presentzia murrizten dute familiaren zaintzako lanetan aritzeko. Honetarako arrazoiak, beraien bikotekideen ardura falta, gizartean familia eta enplegua bateratzeko dauden baldintza eskasak eta genero rolen gizarte presioa dira, azken hauek oraindik emakumeei egozten baitiete zaintzaren lana.

60. Euskal emakumeen jarduera tasa gizonetzkoena baina baxuagoa da oraindik, eta are baxuagoa da enplegu tasa. Hori dela eta, beharrezkoa izango da amatasuna eta garapen pertsonal eta profesionalaren artean hautatu beharra eragingo ez duten neurriak eta politikak martxan jartzea. Honekin, gainera, gure herriko talentuak eta giza kapitala modu egoki batean erabiliko genituzke, askotan azpierzabiltza geratzen baitira.

61. Ez da zalantzarik, krisiaren ondoren, gure Herrian gauzatuko diren proiektuetarako gaitasun nahikodun pertsonak aurkitzeko erronka izango dugula. Honetarako beharrezkoa izango da pertsona bakoitzaren enplegarritasun baldintzak erabat garatzeko formula berriak sortzea, eginbehar sozialki eraikitzailea egikaritzeko bere gaitasuna bermatuz.